# 3. Ordenantza Fiskala

## *Ordenanza Fiscal nº 3*

# Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Zerga

## *Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica*

## 3. ORDENANTZA FISKALA, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN ARAUTZILEA.

### I. KAPITULUA: Izaera eta zergagaia

**1. artikulua.**

1. Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga bide publikoetatik zirkulatzeko gai diren trakzio mekanikoko ibilgailuen titulartasuna zergapetzen duen zuzeneko tributua da, haien mota, kategoria, potentzia, edukiera eta karga edozein direla ere, eta zirkulazio baimenean ageri den helbidea Lasarte-Oriako udalerrian dagoenean exijitzen da.

2. Ibilgailua zirkulatzeko gai izango da bidezko erregistro publikoetan matrikulatua izan denean eta haietan oraindik baja emanda ez dagoenean. Aldi baterako baimena dutenak eta turismo matrikula daramatenak ere zirkulatzeko gai izango dira zerga honen ondorioetarako.

3. Ondoko hauek ez daude zerga honi lotuta:

a) Aspaldiko modeloak izateagatik erregistroetan baja emanda egon arren, kasu berezietan zirkulatzeko baimendu daitezkeenak haientzat antolatzen diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketak direla-eta.

b) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak, hauen karga erabilgarria 750 kilogramotik gorakoa ez denean.

## ORDENANZA Nº 3 REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA

### CAPÍTULO I: Naturaleza y hecho imponible

**Artículo 1.**

1. El Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica es un tributo directo que grava la titularidad de los vehículos de tracción mecánica, aptos para circular por las vías públicas, cualquiera que sea su clase, categoría, potencia, capacidad, y carga cuando conste en el permiso de circulación como domicilio el municipio de Lasarte-Oria.

2. Se considera vehículo apto para la circulación el que hubiere sido matriculado en los registros públicos correspondientes y mientras no haya causado baja en los mismos. A los efectos de este Impuesto también se considerarán aptos los vehículos provistos de permisos temporales y matrícula turística.

3. No están sujetos a este Impuesto:

a) Los vehículos que habiendo sido dados de baja en los Registros por antigüedad de su modelo, puedan ser autorizados para circular excepcionalmente con ocasión de exhibiciones, certámenes o carreras limitadas a los de esta naturaleza.

b) Los remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica cuya carga útil no sea superior a 750 kilogramos.

## II. KAPITULUA: Salbuespenak

**2. artikulua.**

1. Ondoko hauek daude Zergatik salbuetsita:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako udal entitateen ibilgailu ofizialak, defentsari edo herritarren segurtasunari atxikita badaude.

b) Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak, bulego kontsularrenak, eta atzerriko agente diplomatiko eta kreditatuta dauden karrerako funtzionario kontsularrenak, kanpoaldetik identifikatuta badaude eta beren mailan eta hedaduran elkarrekikotasun baldintza betetzen bada.

Baita ere, Espainiako Estatuan egoitza edo bulegoa duten nazioarteko erakundeen ibilgailuak eta beren funtzionario edo kideenak, hauek estatutu diplomatikoa dutenean.

c) Nazioarteko itun edo hitzarmenen ondorioz salbuestekoak diren ibilgailuak.

d) Osasun laguntza emateko edo zauritu zein gaixoak garraiatzeko erabiltzen diren anbulantziak eta gainerako ibilgailuak.

e) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, II. eranskinaren A letran aipatuak. Hau da, 350 kg-tik gorako tararik ez duten ibilgailuak, beren eraikuntzagatik toki lauan 45 km. orduko abiadura gainditu ezin dutenean eta arazo edo ezintasun fisikoren bat duten pertsonek erabiltzeko bereziki proiektatu

## CAPÍTULO II: Exenciones

**Artículo 2.**

1. Estarán exentos del Impuesto:

a) Los vehículos oficiales del Estado, de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de las Entidades Municipales guipuzconas, adscritos a la Defensa o a la seguridad ciudadana.

b) Los vehículos de representaciones diplomáticas, oficinas consulares, agentes diplomáticos y funcionarios consulares de carrera acreditados, que sean súbditos de los respectivos países, externamente identificados y a condición de reciprocidad en su extensión y grado.

Asimismo, los vehículos de los Organismos internacionales con sede u oficina en el Estado Español y de sus funcionarios o miembros con estatuto diplomático.

c) Los vehículos respecto de los cuales así se derive de lo dispuesto en tratados o convenios internacionales.

d) Las ambulancias y demás vehículos directamente destinados a la asistencia sanitaria o al traslado de heridos o enfermos.

e) Los vehículos para personas de movilidad reducida a que se refiere la letra A del anexo II del Reglamento General de Vehículos, aprobado por Real Decreto 2822/1998, de 23 de diciembre, esto es, aquellos vehículos cuya tara no sea superior a 350 kg y que, por construcción, no puede alcanzar en llano una velocidad superior a 45 km/h, proyectado y construido especialmente (y no meramente adaptado) para el uso de

eta eraiki direnean (eta ez bakarrik egokitu).

Era berean, salbuetsita daude minusbaliatuen izenean matrikulatutako ibilgailuak, pertsona horiek soilik erabiltzekoak direnean. Salbuespen hau zirkunstantzia horiek betetzen diren artean aplikatuko da, pertsona ezinduek gidatutako ibilgailuak izan nahiz horiek garraiatzeko ibilgailuak izan.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako salbuespenak ibilgailu batengatik bakarrik izango zaizkie aplikagarriak horien onuradun diren subjektu pasiboei.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, legez 100eko 35ko edo hortik gorako minusbaliotasun maila dutenak izango dira pertsona minusbaliatuak.

f) Udalaren emakida administratibo bidez herri garraio zerbitzuari atxikita dauden autobusak, mikrobusak eta gainerako ibilgailuak, horien plaza kopurua, gidariarena barne, bederatzitik gorakoa denean.

g) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta makineria, Nekazaritzako Makineria inskribatzeko Kartilaz hornituta daudenean.

2.- Artikulu honen 1. apartatuko e) eta g) letretan aipatzen diren salbuespenak gozatu ahal izateko, ibilgiluaen titularrek, Udal honetako erroldan inskribatuan egoteaz gain, eskaera egin beharko dute, eta eskaeran ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia adierazi beharko dituzte. Gainera, alegatutakoa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte. Salbuespenari buruzko erabakia jasotzen

personas con alguna disfunción o incapacidad física.

Asimismo, están exentos los vehículos matriculados a nombre de minusválidos para su uso exclusivo. Esta exención se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias, tanto a los vehículos conducidos por personas con discapacidad como a los destinados a su transporte.

Las exenciones previstas en los dos párrafos anteriores no resultarán aplicables a los sujetos pasivos beneficiarios de las mismas por más de un vehículo simultáneamente.

A efectos de lo dispuesto en esta letra, se considerarán personas con minusvalía quienes tengan esta condición legal en grado igual o superior al 35 por 100.

f) Los autobuses, microbuses y demás vehículos destinados o adscritos al servicio de transporte público en régimen de concesión administrativa otorgada por este Municipio, siempre que tengan una capacidad que exceda de nueve plazas, incluida la del conductor.

g) Los tractores, remolques, semirremolques y maquinaria provistos de Cartilla de Inscripción de Maquinaria Agrícola.

2.- Para poder gozar de las exenciones a que se refieren las letras e) y g) del apartado 1 del presente artículo, los titulares de los vehículos, que deberán figurar empadronados en este Municipio, solicitarán su concesión indicando las características del vehículo, su matrícula y la causa del beneficio, y acreditar, mediante la presentación de la documentación en que consten, la realidad de lo alegado. La notificación en la que se resuelva la concesión de la exención

duen jakinarazpenak egiaztagiriaren balioa izango du.

3.- Aurreko atalean ezarritakoaren efektuetarako, interesatuek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera:

a) Ibilgailuak mobilitate murriztuko pertsonentzat direnean edo minusbaliatuen izenean matrikulatuta daudenean eta horiek bakarrik erabiltzeko edo garraiatzeko direnean:

- Organo eskudunak emandako minusbaliotasuneko ziurtagiria.
- Zirkulatzeko Baimenaren fotokopia, minusbaliotasuna duen pertsonaren izenean.
- Ibilgailuaren Fitxa Teknikoaren fotokopia.
- Ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia, ohiko gidaria azaltzen dena.
- Ibilgailua berak bakarrik erabiltzen duela dioen adierazpen zinpekoa.

b) Traktoreak, atoiak, erdiatoiak eta nekazaritzako makineria.

- Zirkulatzeko baimenaren fotokopia.
- Ibilgailuaren ezaugarri teknikoen ziurtagiriaren fotokopia.
- Nekazaritzako makineriaren inskripzioko txartelaren fotokopia. Edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko “Nekazaritza eta Ingurumena” Departamentuaren Nekazaritzako Makineriaren Erregistro Ofizialean alta eman izanaren ziurtagiria, ibilgailuaren titularraren izenean egina nahitaez.

4.- Salbuespen horiek eskaera egin den dataren hurrengo zerga-periodotik aurrera izango dute efektua, eta zirkunstantzia horiek mantentzen diren artean aplikatuko dira. Dena dela, salbuespena zergaren likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, salbuespena

servirá de documento acreditativo de su existencia.

3.- A los efectos previstos en el apartado anterior, los interesados deberán aportar, junto con la solicitud, la siguiente documentación:

a) En el supuesto de vehículos para personas con movilidad reducida o matriculados a nombre de minusválidos para su uso o transporte exclusivo:

- Certificado de la minusvalía extendido por el órgano competente.
- Fotocopia del Permiso de Circulación a nombre de la persona minusválida.
- Fotocopia de la Ficha Técnica del vehículo.
- Fotocopia de la Póliza del seguro del vehículo en la que figure el conductor habitual del mismo.
- Declaración Jurada de uso exclusivo del vehículo

b) Tractores, remolques, semirremolques y maquinaria agrícola.

- Fotocopia del Permiso de Circulación.
- Fotocopia del Certificado de características técnicas del vehículo.
- Fotocopia de la Cartilla de Inscripción de maquinaria agrícola, o documento acreditativo de Alta en el Registro Oficial de Maquinaria Agrícola del Departamento de “Agricultura y Medio Ambiente” de la Diputación Foral de Gipuzkoa, expedida necesariamente a nombre del titular del vehículo.

4.- Estas exenciones surtirán efectos desde el periodo impositivo siguiente a aquél en que se hubiera efectuado la solicitud y se aplicará en tanto se mantengan dichas circunstancias.No obstante, cuando la exención se solicite antes de que la liquidación del impuesto sea firme, se

emango da baldin eta hartaz gozatzeko beharretsitako eskakizun guztiak betetzen badira tributuaren obligazioa sortzen den egunean.

Aurreko paragrafoan ezarritakoari utzi gabe, Udalak edozein unetan errekeritu ahalko du 3. atalean aipaturiko dokumentazioa berriro akredita dadin, halako moduan non, baldin errekerimendu hori betetzen ez bada, salbuespena automatikoki geratuko baita baliogabetua.

5.- 1. ataleko e) letrak aipatzen duen salbuespen horretarako eskubidea izango bada, beharrezkoa da ibilgailua minusbaliatuaren erabilera esklusiborako destinatua egotea. Horrek, beraz, ibilgailuak zirkulatzen duenean beti barruan egotera obligatzen du.

Gainera, honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

A) Pertsona minusbaliatuak gidaturiko ibilgailuak:

Pertsona minusbaliatuen izenean matrikulaturiko eta pertsona diskapazitatuek gidaturiko ibilgailuen erabilera esklusiboak nahitaezkotzat eskatzen du ibilgailua esklusiboki gidatzea haren gidari den pertsona minusbaliatu titularrak. Eskakizun hori, ordea, ez da betetzen ibiligaluak beste gidari ohiko edo baimendun bat duenean, haren titular den pertsona minusbaliatuaz gain. Ondorioz, baldin eta aseguru-polizan, ibilgailuaren titularra den pertsona minusbaliatuaz gain, beste gidari ohiko edo baimendun bat ageri bada, ulertuko da ibilgailua ez dagoela minusbaliatuaren erabilera esklusibora destinatua.

B) Pertsona minusbaliatuak garraiatzera destinaturiko ibilgailuak.

Ibilgailua haren titularra den pertsona minusbaliatua garraiatzera esklusiboki destinatua dagoela kontsideratzeko, kontuan hartuko da ea ibilgailua pertsona hori garraiatzeko egokitua

concederá si en la fecha del devengo del tributo concurren los requisitos exigidos para su disfrute.

Sin menoscabo de lo dispuesto en el parrafo anterior, el Ayuntamiento podrá requerir en cualquier momento que se vuelva a acreditar la documentación referida en el apartado 3 de manera que si no se cumplimenta dicho requerimiento la exención quedará automáticamente revocada.

5.- Para tener derecho a la exención a que se refiere la letra e) del apartado 1 es preciso que el vehículo esté destinado al uso exclusivo del minusválido, lo que obliga a éste a encontrarse siempre a bordo del vehículo cuando circule.

Además deberán concurrir las siguientes condiciones:

A) Vehículos conducidos por persona con Minusvalía:

El uso exclusivo de los vehículos matriculados a nombre de personas minusválidas y conducidos por personas con discapacidad, exige que el vehículo sea conducido con carácter exclusivo por la persona minusválida titular y conductora del mismo, requisito que no se cumple cuando el vehículo tiene otro conductor habitual o autorizado, además de la persona minusválida titular del mismo. En consecuencia si en la Póliza del Seguro figura además de la persona minusválida titular del vehículo otro conductor habitual o autorizado del mismo, se entenderá que el vehículo no está destinado al uso exclusivo del minusválido.

B) Vehículos destinados al transporte de personas con minusvalía.

Para considerar que el vehículo esta destinado de manera exclusiva al transporte de la persona minusválida titular del mismo, se tendrá en cuenta que el vehículo se encuentre adaptado

dagoen edo zer kalifikazio duen haren elbarritasun graduak, zein pertsona horren elbarritasunaren Kalifikazioko Ebazpenean etorriko baita ezarria. Ebazpen horretan, elbarritasunaren gradua finkatzeaz gain, hurrengo baremo hauetako edozein akreditatu beharko du:

- Hirugarren pertsonen beharra determinatzeko baremoa. Zailtasun hori existitzen dela kontsideratuko da baldin eta onuradun ustekoa baremoko A) atalean (Desplazamendua) sartua badago, gutxienez 2 puntu lortzen dituenean.

- Pertsona minusbaliatuari garraio publiko kolektiboak erabiltzea eragozten dion mobilitateko zailtasunik existitzen ote den determinatzeko baremoa. Zailtasun hori existitzen dela kontsideratuko da baldin eta onuradun ustekoa baremoko A (Aulkiak), B (Bastoiak) edo C (Jokabidea) ataletan deskribaturiko egoeretakoren batean sartua aurkitzen bada, edo, ez egonda ere, gutxienez 7 puntu lortzen dituenean aipaturiko baremo horretako gainerako ataletan jasoriko egoeretakoren batean aurkitzen delako.

Salbuespen hau sustengatzen duen baldintza espresuki ez betetzeak, zeinek xedatzen baitu pertsona minusbaliatuen izenean matrikulaturiko ibilgailuak **esklusiboki erabiltzeko** direla, berekin ekarriko ditu hurrengo ondorio hauek:

- 1. aldian: salbuespena urtaldi batez errebokatzea; hain zuzen, bete eza gertatu deneko hartan.
- 2. aldian: salbuespena 3 urtaldiz errebokatzea; hain zuen, bete eza gertatu deneko hartan eta hurrengo bietan.

- 3. aldian: salbuespena 5 urtaldiz errebokatzea; hain zuzen, bete eza gertatu deneko hartan eta hurrengo lauretan.

para su transporte o la calificación de su grado de munsvalía que vendrá establecido en la Resolución de Calificación de minusvalía de dicha persona donde además de fijarse el Grado de Minusvalía, deberá acreditar cualquiera de los siguientes baremos:

- Baremo para determinar la necesidad de la asistencia de terceras personas. Se considerará la existencia de tal dificultad siempre que el presunto beneficiario se encuentre incluido en el apartado A) (Desplazamiento) del baremo, cuando obtenga un mínimo de 2 puntos.
- Baremo para determinar la existencia de dificultades de movilidad que impidan la utilización de transportes públicos colectivos de la persona minusválida. Se considerará la existencia de tal dificultad siempre que el presunto beneficiario se encuentre incluido en alguna de las situaciones descritas en los apartados A (Sillas), B (Bastones) o C (Conducta) del baremo o, aun no estándolo, cuando obtenga un mínimo de 7 puntos por encontrarse en alguna de las situaciones recogidas en los restantes apartados del citado baremo.

El incumplimiento expreso de la condición sobre la que se sustenta esta exención y que no es otra que la del **uso exclusivo** de los vehículos matriculados a nombre de personas minusválidas conllevará los siguientes efectos:

- 1ª vez: revocar la exención por un periodo de 1 ejercicio, aquel en el que se ha producido el incumplimiento.
- 2ª vez: revocar la exención por un periodo de 3 ejercicios, aquel en el que se ha producido el incumplimiento y los dos siguientes.
- 3ª vez: revocar la exención por un periodo de 5 ejercicios, aquel en el que se ha producido el incumplimiento y los cuatro siguientes.

- 4. aldian: salbuespena behin betiko errebokatzea.

### III. KAPITULUA: Subjektu pasiboak

**3. artikulua.**

Honako hauek dira zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisiko zein juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan aipatutako entitateak, zirkulazio baimenean ibilgailua beren izenean ageri denean.

### IV. KAPITULUA: Zergaldia eta sortzapena

**4. artikulua**.

1. Zergaldia bat dator urte naturalarekin, salbu ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean. Horrelakoetan, zergaldia ibilgailua eskuratzen den egunean hasiko da, eta Trafiko Buruzagitzan behin betiko baja ematen zaion egunean amaituko da.

2. Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

### V. KAPITULUA: Zerga kuota

**5. artikulua.**

1. Eranskinean jasota dauden tarifen taulari jarraiki exijituko da zerga.

2. Ibilgailuak lehen aldiz eskuratzen direnean edo behin betiko baja ematen zaienean, kuota hilabete naturaletan hainbanatuko da, ibilgailua eskuratu edo baja ematen zaion hilabetea barne.

- 4ª vez: revocar la exención con carácter definitivo.

### CAPÍTULO III : Sujetos pasivos

**Artículo 3.**

Son sujetos pasivos de este Impuesto las personas físicas o jurídicas y las Entidades a que se refiere el articulo 35 de la Norma Foral General Tributaria, a cuyo nombre conste el vehículo en el permiso de circulación.

### CAPÍTULO IV: Periodo impositivo y devengo

**Artículo 4.**

1. El periodo impositivo coincide con el año natural salvo en el caso de primera adquisición o baja definitiva de los vehículos. En estos casos el periodo impositivo comenzará el día en que se produzca dicha adquisición o terminará el día en que se produzca la baja definitiva en la Jefatura de Tráfico, respectivamente.

2. El Impuesto se devenga el primer día del periodo impositivo.

### CAPÍTULO V: Cuota tributaria

**Artículo 5.**

1. El impuesto se exige con arreglo al cuadro de tarifas que consta en el anexo.

2. En el caso de primera adquisición de vehículos o, en su caso, la baja definitiva de los mismos, el importe de la cuota se prorrateará por meses naturales, incluido el mes al que corresponde el día en que se produzca la adquisición o baja.

Ibilgailua lapurtzeagatik Erregistro Publikoan aldi baterako baja ematen zaionean ere kuota modu berean hainbanatuko da.

3. Aurreko apartatuko tarifak aplikagarri izango dituzten ibilgailu motak zehazteko, kontuan hartuko da abenduaren 21eko 114/1999 Foru Dekretua, hain zuzen ere, ibilgailu mota desberdinen kontzeptua ezarri eta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak aplikatzeko arauak finkatzen dituena. Zehazki esanda:

a) Zerga honen ondorioetarako, bere tarifetan zerrendatzen diren ibilgailu mota desberdinen kontzeptua abenduaren 23ko 2.822/1998 Errege Dekretuak, Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onartzekoak, II. eranskinean jasotakoa izango da.

b) Furgoi edo furgonetek, ibilgailu misto moldagarriek eta turismotik eratorritakoek turismo gisa tributatuko dute beren potentzia fiskalaren arabera. Ez da horrela izango, ordea, 1.000 kilogramotik gorako karga erabilgarria garraiatu dezaketenean, kamioi gisa tributatuko baitute orduan.

c) Autokarabanek turismo gisa tributatuko dute beren potentzia fiskalaren arabera.

d) Edozein kasutan ere, tarifa horien D) letran adierazitako traktoreen errubrika orokorrak honako hauek ere hartzen ditu: «traktokamioiak», «obra eta zerbitzuetako traktoreak» eta trakzio mekanikoko beste ibilgailuek garraiatu edo eramanak izan gabe bide publikoetatik zirkula dezaketen makina autobultzatuak.

e) Hiru gurpileko ibilgailuak eta kuatrizikloak motozikletatzat hartuko

También procederá el prorrateo de la cuota, en los mismos términos, en los supuestos de baja temporal en el Registro Público correspondiente por sustracción o robo del vehículo.

3. A efectos de determinar las diversas clases de vehículos para la aplicación de las tarifas indicadas en el apartado anterior, se estará a lo dispuesto en el Decreto Foral 114/1999, de 21 de diciembre, por el que se determina el concepto de las diversas clases de vehículos y las reglas de aplicación de las Tarifas del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica. En concreto:

a) A los efectos de este Impuesto, el concepto de las diversas clases de vehículos relacionadas en las Tarifas del mismo, será el recogido en el anexo II del Real Decreto 2.822/1998, de 23 de diciembre, que aprueba el Reglamento General de Vehículos.

b) Los furgones o furgonetas, los vehículos mixtos adaptables y los derivados de turismo tributarán como turismo, según su potencia fiscal, excepto que los mismos puedan transportar más de 1.000 kilogramos de carga útil, en cuyo caso, tributarán como camión.

c) Las autocaravanas tributarán como turismo según su potencia fiscal.

d) En todo caso, la rúbrica genérica de tractores a que se refiere la letra D) de las indicadas Tarifas, comprende a los «tractocamiones», a los «tractores de obras y servicios», así como a las máquinas autopropulsadas que puedan circular por las vías públicas sin ser transportadas o arrastradas por otros vehículos de tracción mecánica.

e) Los vehículos de tres ruedas y cuatriciclos tendrán la consideración, a

dira zerga honen ondorioetarako eta, beraz, beren zilindradaren arabera tributatuko dute. Kuatriziklo arinek, beren aldetik, ziklomotore gisa tributatuko dute.

f) Ibilgailu artikulatuen kasuan, arrasteko potentzia daramak eta arrastean eramandako atoiek eta erdiatoiek aldi berean eta bereizita tributatuko dute.

g) Ibilgailu bakoitzari dagokion potentzia fiskala ezartzeko, zaldi fiskaletan adierazia, indarrean dagoen Foru Aginduaren Eranskinean ezarritako zerrendan ageri dena aplikatuko da. Agindu horrek onesten ditu ibilgailu eta itsasontzi erabiliak saltzeko batez besteko prezioak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia kudeatzean aplika daitezkeenak.

Aipatutako eranskinean agertzen ez diren ibilgailuen kasuan, potentzia fiskala lehen aipatutako Ibilgailuen Araudi Orokorraren V. Eranskinean xedaturikoaren arabera ezarriko da.

## VI. KAPITULUA: Hobariak

### 6. artikulua.

1. Izaera orokorrez, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzerako eraginik. Dena den, onura fiskala likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, onura emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.

los efectos de este impuesto, de motocicletas y, por tanto, tributarán por la capacidad de su cilindrada. Los cuatriciclos ligeros, a su vez, tributarán como ciclomotores.

f) En el caso de los vehículos articulados tributarán simultáneamente y por separado el que lleve la potencia de arrastre y los remolques y semirremolques arrastrados.

g) A efectos de establecer la potencia fiscal, expresada en caballos fiscales, que corresponde a cada vehículo se aplicará aquella que figure en la relación establecida en el Anexo de la Orden Foral en vigor por la que se aprueban los precios medios de venta de vehículos y embarcaciones usados, aplicables en la gestión del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, Impuesto sobre el Patrimonio, Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones e Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte.

Para aquellos vehículos que no se encuentren en el citado anexo, la potencia fiscal se establecerá de acuerdo con lo dispuesto en el Anexo V del antes referido Reglamento General de Vehículos.

## CAPÍTULO VI: Bonificaciones

### Artículo 6.

1. Con caracter general, el efecto de la concesión de las bonificaciones empieza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de la solicitud y no puede tener carácter retroactivo. No obstante, cuando el beneficio fiscal se solicite antes de que la liquidación sea firme, se concederá si en la fecha del devengo del tributo concurren los requisitos exigidos para su disfrute.

Hobaria interesatuek eskatu beharko dute ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren zergatia adieraziz. Udal Administrazioak hobaria onartu ondoren, agiri bat luzatuko du eman dela frogatzeko.

2. Ibilgailu historikoek edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita bost urteko antzinatasuna dutenek % 50(e)ko hobaria izango dute zerga kuotan. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

3. $CO_2$aren emisio ofizialak kilometroko 120 gramotik gorakoak ez dituzten ibilgailuek, qued motakoak izan ezik, % 25eko hobaria izango dute.

Hobariak 5 urteko iraupena izango du, lehen aldiz matrikulaturiko datatik kontatzen hasita.

$CO_2$aren emisio ofizialak, kasua hala bada, erregaiaren kontsumoari eta emisioei buruzko etiketaren bitartez akreditatuko dira, edota ibilgailuaren fabrikatzaileak edo inportatzaileak horretarako jaulkiriko ziurtagiriaren bitartez, salbu-eta emisio horiek idatzirik ageri badira inspekzio teknikoko txartelean edo dena delako ibilgailuari buruz indibidualki jaulkiriko izaera ofizialeko beste edozein dokumentutan.

## VII. KAPITULUA: Kudeaketa eta likidazioa

### 7. artikulua.

Ibilgailuaren zirkulazio baimenean ageri den helbidea bere udalerrian dagoenean, zerga kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea, eta orobat, zerga kudeaketan emandako egintzak berrikustea Lasarte Oriako Udalaren ardura da.

Los interesados deberán instar su concesión indicando las características del vehículo, su matrícula y causa del beneficio. Declarada ésta por la Administración Municipal, se expedirá un documento que acredite su concesión.

2. Gozarán de una bonificación del 50 % de la cuota tributaria, los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de veinticinco años, contados a partir de la fecha de su fabricación o, si ésta no se conociera, tomando como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.

3. Gozarán de una bonificación del 25% los vehículos cuyas emisiones oficiales de CO2 no sean superiores a 120 gramos el kilómetro, con excepción de los vehículos tipo quad.

La bonificación tendrá una duración de 5 años contados desde la fecha de su primera matriculación.

Las emisiones oficiales de CO2 se acreditarán, en su caso, por medio de la etiqueta sobre consumo de combustible y emisiones o de un certificado expedido al efecto por el fabricante o importador del vehículo, excepto en los casos en que dichas emisiones consten en la tarjeta de inspección técnica o en cualquier otro documento de carácter oficial expedido individualmente respecto del vehículo de que se trate.

## CAPÍTULO VII: Gestión y liquidación

### Artículo 7.

La gestión, liquidación, inspección y recaudación del impuesto, así como la revisión de los actos dictados en vía de gestión tributaria, corresponde al Ayuntamiento de Lasarte Oria cuando el domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo pertenezca a su término municipal.

**8. artikulua.**

1. Matrikulazioaren eta zirkulatzeko baimenaren ondorioz zergan alta hartzen duten ibilgailuen kasuan, autolikidazio erregimenean kudeatzen da zerga, eta gainontzeko ibilgailuen kasuan, berriz, Udalak urtero egiten duen Erroldaren bidez.Aitorpen-likidazioak Udaletxean aurki daitezkeen inprimaki normalizatuak erabiliz egingo dira.

Aitorpen-likidazio horiek kalkulurako beharrezkoak diren elementuak jasoko dituzte, eta agiri hauek erantsita aurkeztuko dira: ibilgailua erosi edo aldatu izanaren frogagiriak, ezaugarri teknikoen ziurtagiria eta subjektu pasiboaren Nortasun Agiria edo Identifikazio Fiskaleko zenbakia.

2. Zergaren ordainketa, Aitorpen-likidazioa aurkeztuko den unean gauzatuko da.

Edozein kasutan ere, ibilgailua matrikulatu baino lehen, bulego kudeatzaileak egiaztatuko du ordainketa behar den zenbatekoagatik egin dela, eta aitorpen inprimakia egiaztatu izana adieraziko du.

3. Tramitazio hori erraztearren, mota horretako espedienteak bideratzen dituzten gestoria administratiboekin lankidetzako hitzarmenak ezarri ahalko dira, zeinetan zehaztuko baitira tramite horiek erregelatzen dituzten arau espezifikoak.

**Artículo 8.**

1. El impuesto se gestiona en regimen de autoliquidación respecto a los vehículos que son alta en el impuesto como consecuencia de su matriculación y autorización para circular; y el resto de vehículos a traves del Padrón anual confeccionado por el Ayuntamiento.Las declaraciones-liquidaciones se efectuarán en los impresos normalizados obrantes en el Ayuntamiento.

Estas declaraciones-liquidaciones contendrán los elementos necesarios para su cálculo, y se presentarán junto con la documentación acreditativa de su compra o modificación, el certificado de sus características técnicas y el Documento Nacional de Identidad o el Código de Identificación Fiscal del sujeto pasivo.

2. El pago del Impuesto se efectuará en el momento de la presentación de la declaración-liquidación.

En todo caso, con carácter previo a la matriculación del vehículo, la oficina gestora verificará que el pago se ha efectuado en la cuantía correcta y dejará constancia de la verificación en impreso de declaración.

3. Con el fin de facilitar dicha tramitación, se podrán establecer con las Gestorías administrativas que cursen este tipo de expedientes, convenios de colaboración donde se especifiquen normas específicas que regulen estos tramites.

**9. artikulua.**

1. Trafiko Buruzagitzari ibilgailuaren matrikulazioa, zirkulatzeko gaitasun agiria edo behin betiko baja eskatzen diotenek Zerga ordaindu izana frogatu beharko dute aldez aurretik.

**Artículo 9.**

1. Quienes soliciten ante la Jefatura de Tráfico la matriculación, la certificación de aptitud para circular o la baja definitiva de un vehículo, deberán acreditar, previamente, el pago del Impuesto.

2. Ibilgailuen titularrek Trafiko Buruzagitzari haien erreformaren berri ematen diotenean, Zerga honen eraginetarako duten sailkapena aldatzen bada betiere, eta orobat, ibilgailuak transferitu, zirkulazio baimenean ageri den helbidea aldatu edo horiei baja ematen dietenean, zergaren azken ordainagiria ordaindu izana frogatu beharko diote aurrez Trafiko Buruzagitzari. Horrek ez du eragotziko, dena den, kontzeptu horregatik sortu, likidatu, kobrantzara aurkeztu eta preskribitu ez diren zor guztien ordainketa kudeaketa eta ikuskaritza organoen bitartez exijitu ahal izatea.

Hamabost urteko edo hortik gorako antzinatasuna duten ibilgailuen behin betiko bajak ordainketa frogatzeko obligaziotik kanpo geratzen dira.

3. Trafiko Buruzagitzek ez dute ibilgailuen baja edo transferentzia espedienterik izapidetuko, aurretik Zerga ordaindu izana frogatzen ez bada.

**10. artikulua.**

Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

**VIII. KAPITULUA:**

**Betebehar formalak eta zerga arlokoak**

**11. artikulua.**

1. Zerga honi lotutako ibilgailuen titularrek beharrezko tramiteak egin beharko dituzte Trafiko Buruzagitzan zirkulazio baimenean agertzen den helbidea beren ohiko egoitzakoa izan dadin.

2. Los titulares de los vehículos, cuando comuniquen a la Jefatura de Tráfico la reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación a efectos de este Impuesto, así como también en los casos de transferencia, de cambio de domicilio que conste en el permiso de circulación del vehículo, o de baja de dichos vehículos, deberán acreditar previamente ante la referida Jefatura de Tráfico el pago del último recibo presentado al cobro del Impuesto, sin perjuicio de que sea exigible por vía de gestión e inspección el pago de todas las deudas por dicho concepto devengadas, liquidadas, presentadas al cobro y no prescritas.

Se exceptúa de la referida obligación de acreditación el supuesto de las bajas definitivas de vehículos con quince o más años de antigüedad.

3. Las Jefaturas de Tráfico no tramitarán los expedientes de baja o transferencia de vehículos si no se acredita previamente el pago del Impuesto.

**Artículo 10.**

No se exigirá interés de demora cuando, habiendo sido solicitado por el sujeto pasivo en período voluntario, el Ayuntamiento le haya concedido el aplazamiento o fraccionamiento de pago. Para la obtención de este beneficio será preciso que el pago del impuesto se produzca en el mismo ejercicio que el de su devengo.

**CAPÍTULO VIII:**

**Obligaciones formales y tributarias**

**Artículo 11.**

1. Los titulares de vehículos objeto de este Tributo deben tramitar en la Jefatura de Tráfico la adecuación del domicilio que conste en el permiso de circulación al de su residencia habitual.

2. Titulargoaren eskualdaketa burutzen dutenek edo dagozkien erregistru publikoetan bere behin-betiko baja eskatzen dutenek, aldi berean udal-bulegoetan udal-zerga honen eraginetarako bidezkoa den deklarazioa aurkeztu beharko dute.

3. urreko obligazioak ez betetzea urrapen fiskaltzat hartuko da.

### IX. KAPITULUA: Erroldak

**12. artikulua.**

1. Matrikulatuta dauden edo zirkulatzeko gai diren ibilgailuen kasuan, zergaren urteko kuoten ordainketa martxoaren 1etik apirilaren 15era edo hurrengo egun baliodunera bitartean gauzatuko da.

2. Aurreko apartatuan araututako kasuan, urteko errolda erabiliz bilduko dira kuotak. Erroldaren aldaketak Trafikoko Erregistro Publikoaren datuetan oinarrituko dira.

3. Errolda edo zergaren matrikula udaletxeko bulegoetan jendaurreko ikusgai jarriko dira dagozkien kobrantza-epeak hasi baino hamabost egun lehenagotik eta hamabost eguneko epez.Epe horretan interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak egin ahal izango dute.

Jendaurreko erakusketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta subjektu pasibo bakoitzari likidazioa jakinarazteko balio izango du.

### X. KAPITULUA: Itzulketak

**13. artikulua.**

1. Ibilgailuari zerga sortu ondoren ematen bazaio behin betiko baja eta, ordurako, kuota

2. Quienes realicen la transferencia de titularidad o soliciten la baja definitiva de la misma en los registros públicos correspondientes, deberán presentar al propio tiempo en las oficinas municipales la oportuna declaración a efectos de este impuesto municipal.

3. El incumplimiento de las anteriores obligaciones se reputará como infracción fiscal.

### CAPÍTULO IX: Padrones

**Artículo 12.**

1. En el caso de vehículos ya matriculados o declarados aptos para la circulación, el pago de las cuotas anuales del impuesto se realizará del 1 de marzo al 15 de abril o inmediato hábil posterior.

2. En el supuesto regulado en el apartado anterior, la recaudación de las cuotas correspondientes se realizará mediante el sistema de padrón anual. Las modificaciones del padrón se fundamentarán en los datos del Registro Público de Tráfico.

3. El padrón o matrícula del impuesto se expondrá al público en las oficinas municipales quince días antes de iniciarse el período de cobro y por un período de quince días, para que los interesados legítimos puedan examinarlo y, en su caso, formular las reclamaciones oportunas.

La exposición al público se anunciará en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y producirá los efectos de notificación de la liquidación a cada uno de los sujetos pasivos.

### CAPÍTULO X: Devoluciones

**Artículo 13.**

1. Cuando la baja definitiva del vehículo se produzca con posterioridad al devengo del

ordainduta badago, subjektu pasiboak dagokion zenbatekoaren itzulketa eskatu ahal izango du Ordenantza Fiskal honen 5.2 artikuluan aipatzen den hainbanaketa aplikatuta.

impuesto, y ya haya sido satisfecha la cuota, el sujeto pasivo podrá solicitar el importe que, por aplicación del prorrateo previsto en el apartado 2º del artículo 5 de la presente Ordenanza Fiscal, le corresponda percibir.

2. Subjektu pasiboari itzulketa horren berri ematen duen dokumentazioa aurkeztean egingo zaio.

2. La devolución al sujeto pasivo se realizará en el momento de la presentación de la documentación que la acredite.

**Xedapen gehigarria**

11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraiki, zerga honi Zergen Foru Arau Orokorrak kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari buruz nahiz zerga urraketa eta zigorrei buruz jasotzen dituen arauak aplikatuko zaizkio.

**Disposición Adicional**

De conformidad con la Norma Foral 11/1.989, son de aplicación a este impuesto las normas sobre gestión, liquidación, inspección, recaudación e infracciones tributarias y sanciones, reguladas en la Norma Foral General Tributaria.

**Amaierako xedapena**

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren Ordenantza Fiskal Erregulatzailea, zeinen atal osakide bait dira bere Eranskinean bildutako ehunekobesteen koadroa eta tarifa, 2003ko Urriaren 10ean izan zen behin-betikoz onetsia eta 2004(e)ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta indarrean jarraituko dute horiek indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den bitartean.

**Disposición final**

La Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, de la que son parte integrante el cuadro de porcentajes y la tarifa contenidos en su Anexo, quedó aprobada definitivamente el día 10 de Octubre de 2003, surtirá efectos a partir del 1 de enero de 2004 y seguirán en vigor en tanto no se acuerde su derogación o modificación.

**Xedapen indargabetzailea**

Indargabeturik geratzen da Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren kuotak zehazteko oinarrizko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala, 1989(e)ko urriaren 4(e)an behin betiko onartua.

**Disposición derogatoria**

Queda derogada la Ordenanza Fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, aprobada con carácter definitivo el 4 de octubre de 1989.

**ERANSKINA**

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO ELEMENTUEN ERREGULATZEN**

**ANEXO**

**ORDENANZA REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA**

| IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA<br>POTENCIA Y CLASE DE VEHÍCULO | KOEFIZ.<br>COEFIC | KUOTA |
|---|---|---|
| ***A) TURISMOAK / TURISMOS:*** | | |
| 1.- 9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak<br>De menos de 9 c. fiscales | 1,925 | 34,70 |
| 2.- 9 eta 11,99 zaldi fiskal bitartekoak<br>De 9 hasta 11,99 c. fiscales | 2,130 | 76,80 |
| 3.- 12 eta 13,99 zaldi fiskal bitartekoak<br>De 12 hasta 13,99 c. fiscales | 2,196 | 132,00 |
| 4.- 14 eta 15,99 zaldi fiskal bitartekoak<br>De 14 hasta 15,99 c. fiscales | 2,200 | 185,10 |
| 5.- 16 eta 19,99 zaldi fiskal bitartekoak<br>De 16 hasta 19,99 c. fiscales | 2,200 | 238,00 |
| 6.- 20 zaldi fiskal baino gehiagokoak<br>De más de 20 c. fiscales | 2,200 | 290,85 |
| ***B) AUTOBUSAK / AUTOBUSES:*** | | |
| 10.- 21 jarleku baino gutxiagokoak<br>De menos de 21 plazas | 2,196 | 182,95 |
| 11.- 21 eta 50 jarleku bitartekoak<br>De 21 a 50 plazas | 2,197 | 260,60 |
| 12.- 50 jarleku baino gehiagokoak<br>De más de 50 plazas | 2,197 | 325,75 |
| ***C) KAMIOIAK / CAMIONES*** | | |
| 20.- 1.000 Kg. baino gutxiagoko karga baliagarrikoak<br>De menos de 1000 Kg. de carga útil | 2,200 | 93,00 |
| 21.- 1.000 kg.tik 2.999ra arteko karga baliagarrikoak<br>De 1000 a 2.999 Kg. de carga útil | 2,196 | 182,95 |
| 22.- 2.999 kg. baino gehiagotik 9.999ra arteko karga baliagarrikoak<br>De más de 2.999 a 9.999 Kg. de carga útil | 2,197 | 260,60 |
| 23.- 9.999 kg. baino gehiagoko karga baliagarrikoak<br>De más de 9.999 Kg. de carga útil | 2,197 | 325,75 |
| ***D) TRAKTOREAK / TRACTORES:*** | | |
| 30.- 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak<br>De menos de 16 c. fiscales | 2,200 | 38,87 |
| 31.- 16 zaldi fiskaletik 25era artekoak<br>De 16 a 25 c. fiscales | 2,197 | 61,00 |

| IBILGAILUAREN POTENTZIA ETA MOTA<br>POTENCIA Y CLASE DE VEHÍCULO | KOEFIZ.<br>COEFIC | KUOTA |
|---|---|---|
| 32.- 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak<br>De más de 25 c.fiscales | 2,196 | 182,95 |
| ***E) ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK / REMOLQUES Y SEMIRREMOLQUES :*** | | |
| 40.- 1.000 Kg. baino gutxiagoko eta 750 Kg baino gehiagoko karga baliagarrikoak<br>De menos de 1000 Kg. y más de 750 kg de carga útil | 2,200 | 38,87 |
| 41.- 1.000 Kg.tik 2.9994a arteko karga baliagarrikoak<br>De 1000 a 2.999 Kg. de carga útil | 2,197 | 61,00 |
| 42.- 2.999 kg. baino gehiagoko karga baliagarrikoak<br>De más de 2.999 Kg. de carga útil | 2,196 | 182,95 |
| ***F) BESTELAKO IBILGAILUAK / OTROS VEHÍCULOS:*** | | |
| 50.- Ziklomotorrak<br>Ciclomotores | 2,200 | 9,72 |
| 51.- 125 cc.ra arteko motozikletak<br>Motocicletas hasta 125 c.c. | 2,200 | 9,72 |
| 52.- 125 baino gehiagotik 250 c.c.ra arteko motozikletak<br>Motocicletas de más de 125 hasta 250 c.c. | 2,200 | 16,65 |
| 53.- 250 baino gehiagotik 500 c.c.ra arteko motozikletak<br>Motocicletas de más de 250 hasta 500 c.c. | 2,200 | 33,33 |
| 54.- 500 baino gehiagotik 1.000 c.c.ra arteko motozikletak<br>Motocicletas de más de 500 hasta 1000 c.c. | 2,200 | 66,64 |
| 55.- 1.000 cc. baino gehiagoko motozikletak<br>Motocicletas de más de 1000 c.c. | 2,200 | 133,28 |

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren Ordenantza Fiskal Erregulatzailea, zeinen atal osakide bait dira Eranskin honetan bildutako ehunekobesteen koadroa eta tarifa, 2.003ko Urriaren 10ean izan zen behin-betikoz onetsia eta bere azken aldaketa 2008(e)ko urriaren 17(e)an onartu zen, eta 2009(e)ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

La Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, de la que son parte integrante el cuadro de porcentajes y la tarifa contenidos en este Anexo, quedó aprobada definitivamente el día 10 de Octubre de 2.003, y su última modificación se aprobó el 17 de octubre de 2008, que entrará en vigor el 1 de enero del 2009.

KONTUHARTZAILEAK ALKATEAK IDAZKARIAK